

## BIZIAN GORA ZER DAN

*Bizian Gora zer garan  
nahi badozu jakin,  
berbaz ezinda esan ta  
Txo, zatoz gurekin.*

1

Jaunak egin gaitu danok  
Famili bateko,  
kristau anai-arreba lez  
pozik biziteko.

2

Bertso, kantu eta txiste  
hau dok umorea!  
Behar dana egiteko  
bada adorea.

3

Hamabostero batzarra  
danok alkarrekin,  
Jainkoaren izenean  
otoiz eta ekin.

4

Bizian Gora daukagu  
Bizkaia osoan,  
hartuemonean gagoz  
alkarte gozoan.

5

Gorputza zahar eta gaixo  
baina\_ arima fina,  
Bizian Gorak lagunduz  
jo dogu esprina.

6

Bizian Gorari esker  
ondo gabiltz hemen,  
eta prest gagoz Jaunari  
esateko: Amen.